

Bizkaitar eta gipuzkoar nekazariak 1718ko matxinadan

Xabier Lamikiz
Historialaria

1718ko errege-agindu baten eraginez barnealdeko aduanak kostaldera eraman zirenean, hainbat bizkaitar eta gipuzkoarrek, lekualdatzea foruen aurka zihoala-eta, protestatzeko matxinadaren bideari heltzea erabaki zuten. Matxinatuen gehiengoa hiribildu garrantzitsuenen inguruko herrietako nekazariak izan ziren. Foruei egiten zitzaien eraso al zen matxinadaren bultzatzaile bakarra? Badirudi foruenganako atxikimenduaz gain, lurjabetza-ren banaketak, urte horietako uzta txarrek edo kontrabandoaren garrantziak zeresan handia izan zutela gertakizun horietan. Matxinadaren irudia, horrela, lehen begirada batean dirudiena baino nahasiagoa litzateke. Artikulu honetan azterketa sakonagoa merezi duen zenbait galdera planteatu nahi da.

In 1718, when by a king-order interior-customs were moved to the seaside, some natives of Biscay and Gipuzkoa took the disturbance way arguing the fact was contrary to the Regional Law Code. Most of them were farmers who lived in the surroundings of the most important cities. But, was this really the only reason to move these people? Land distribution, bad crops and the importance of smuggling seem to be related to what happened those years. In this sense the image of disturbances is more complicate than it seemed before. The article tries to formulate some question which requires a deeper analysis.

1. Gertaerak

1718ko irailaren 4an, haserre bizian “Gora erregea, gora Bizkaia, heriotza gobernu txarra eta aberriaren traidoreentzat” (Laborda, 1978: 162)¹ ohiukatuz, inguruko elizateetatik zetozen hainbat nekazari oldarka sartu ziren Bilbora. Arestian bakoitzaren herrian batzartu berri ziren eta aduanen lekualdatzeari buruz eztabaidatu ondoren, Bilboko hiribildura jaistea erabaki zuten lekualdatze hori ezereztatu nahian. Egun horretan Begoña, Deustua eta Arrigorriagako biztanleak agertu ziren Bilbon, baina hurrengo bi egunetan beste asko izango ziren hiru horiei batuko zitzaizkienak. Egun horietan Bilbon suertatu istilu larriak Bizkaiak ez ezik Gipuzkoak ere pairatuko zuen gatazkan oihartzun handienekoak izan ziren.

Gertakarien zioa (ikusiko dugunez agian hobe litzateke detonatzaileaz hitz egitea) 1717ko abuztuaren 31ko errege-dekretuan bilatu behar dugu, zeinak barnealdeko aduanak, alegia, Balmaseda, Orduña, Gasteiz, Ataubun, Tolosa eta Seguran zeudenak, itsas portuetara eta Frantziako mugara mugitzeko agindua ematen baitzuen². Felipe V.aren gobernuak erabaki horrek euskal probintzien-gandik jaso zezakeen harrera txarraren susmoa zeukanez, dekretuarekin batera bizkaitar merkataria handiei zuzendutako mehatxua bidali zuen: egoera berria onartzen ez bazen Bilbotik ateratzen zen artile esportazio pribilegioa bertan behera utziko zen. Baina ez ziren soilik merkataria horiek konbentzitu behar zirenak, garrantzi handiagoa zuen Jaurerriaren gobernu nagusiki kontrolatzen zuten jauntxoek laguntza jasotzeak. Horrela, 1718ko martxoaren 19an aduanak batetik Portugalete, Bermeo eta Bilbon jarri ziren, bestetik Donostia eta Irunen. Esan daiteke momentu horretantxe hasi zela matxinada, oraindik nekazariak paper protagonista berezirik bete ez arren.

Aduanen lekualdatzeak helburu argi bati erantzuten zion: «establecer y asegurar al Rey una renta gruesa, prompta y efectiva» (Angulo, 1995: 207), eta erabaki hori Borboiek beren mende zituzten lurraldeen homogeneizazio nahian sartzen da, hau da, monarkiaren zentralismoa areagotu nahi zuen prozesuan (ikus Olaechea, 1979).

Lekualdatzearen aurretik hornikuntza askatasuna partzialki bermatua izan zen beste bi dekreturen eraginez (otsailaren 28 eta martxoaren 16koak), zeintzuek zitu, olio, lekadun eta ardoaren trafiko eta deskarga libre baimentzen baitzuten; baina ez berebiziko garrantzia zuten kakao, azukre edo tabakorria bezalako produktuak (garrantzia ez agian hornikuntzarako eta bai, ikusiko dugunez, oreka ekonomiko zein sozialari dagokionean). Abuztuaren 1eko beste errege-agindu batek euskal burdinoletatik ateratako burdinari ere zama oro kentzen zion. Dekretu horiek foruetan jasotzen zen mugasari-salbuespenari ez erasotzea bilatzen zuten,

1. Aipu hori izan da matxinada-garaikoen artetik euskaratu dudana bakarra, hurrengo guztiak jatorrizko gazteleran uztea egokiago iruditu baitzait. Historialarien aipuak, ordea, gehienak nik euskaratu ditut, euskaraz argitaratuta dauden bi lanetatik hartutakoak izan ezik, alegia Fernández de Pinedo (1999) eta Porresenak (1998).

2. Dekretuak beste zenbait tokitako aduanen lekualdatzea ere bazekarren, besteak beste Galizian, Asturiasen edo Kantabrian. Horien kasuan esaten zenez «todo lo propuesto aquí muy facil de hazer porque ni hai tropiezo ni embarazo alguno». Aitzitik Euskal Herriaren kasurako arazoak aurrikusten ziren, zeren euskal probintzietan «se supone avra alguna resistencia o dificultad por los fueros» (Portillo, 1991: 465-466).

azalpen malthusiarrari kasu egitera, eskualdeko lur emankaitzen ondorioz lortutakoa baitzen³. Salbuespen horri esker, bi probintziek itsasotik zein Gaztelatik askatasunez hornitzeko eskubidea zeukaten. Portu lehorretako aduanetan (barnealdean egonik hala deituak) gaztelau edo europar merkatuetara zihoazen produktuak soilik zamatuko ziren.

Bilbon gertatutakoa zinez adierazgarria da, nekazarien portaera zein izan zen adierazteko benetan adibide aparta.

Korrejidoreak aduanak derogatzeko eskaini zizkieten paperak sinatzeari uko egin ondoren, nekazariak Bizkaiko Ahaldu Nagusia zen Enrique Aranarengana abiatu ziren, eta etxetik ihes eginda zela ikusi bezain laster, hiribilduko pertsonaia ospetsu batzuen etxeak erretzeari ekin zioten: txikizio horren biktima izan ziren, besteak beste, Vargas-eko markesa eta Nicolás Echebarria (Santiagoko Ordenako zalduna). Aitzitik, hurrengo egunean, irailaren 5ean, Ahaldu Nagusia aurkitu eta azkenik dramatiko bilakatuko ziren zirkustantziatan amore eman behar izan zuen matxinatuen aurrean. Hiribilduko biztanle batek kontatzen duenaren arabera, «paració para Bilvao día del Juicio Universal, para las 8 de la mañana nos vimos por todas partes rodeados de más de 5000 hombres con bocas de fuego y lanzas» (Otazu, 1979: 230). Bilbon ziren Abando, Begoña, Deustua, Galdakao, Arrigorriaga, Basauri, Lezama, Etxebarri, Erandio, Sondika eta «kostaldetik gertuko beste zenbait» elizateko biztanleak, gehienak nekazariak (Labayru, 1970: 93). Halako jendetza ikusita, Korrejidoreak aurreko eguneko paperak sinatzea onartu zuen, minutu batzuk beranduago Ahaldu Nagusiak egingo zuen bezalaxe, baina honi, aipatu kronikaren arabera

le rodeó la república de Herandio y después de haver firmado, en medio del Arenal, dióle uno un golpe que le abrió la caveza; a éste le siguieron tantos con espadas, chuzos y lanzas que es orror el dezirlo; por fin murió a las 11 de la mañana; y quantos aldeanos pasaron a verle todos le metían las espadas. No dejaron que nadie le tocasse el cuerpo en todo el día, ni noche, pena de la vida. No hubo sacerdote que atreviese llegar porque hacían con él lo mismo (Otazu, 1979: 228).

Nekazariak nahita bilatu zuten *Fuente Ovejuna*-tik ateratakoa dirudien “ejekuzio” hori taldelan bihurtzea; gure ustez ekintza antolatua izan zelako froga garbia litzateke hau. Hori bera adieraziko luke matxinatuek erruduntzat jotzen zituztenen etxeak soilik hustu izanak, ondoko etxeak erre ez zitezen arreta handia jarriz (sua beste etxeetara zabaltzeko arriskua egon zenean, erasotuaren altzariak leihotatik kalera bota eta han bertan erretzeko erabakia hartu zuten). Egoera horretan, gertakarien kronistek berek ere onartzen dutenez, ez zen harrapakariarik gertatu⁴.

3. Bizkaiko foruak bere lehen tituluko 10. Legean zera dio: «Que había de Fuero, uso y costumbre y libertad que los dichos vizcaynos Hijos Dalgo, fuesen y sean libres y essentas para comprar y vender e recibir en sus casas todas e cualquier mercanderías, así de Pao como de Hierro, como otras cualesquier cosas que se puedan comprar y vender según que fasta aquí siempre lo fueron». Antzeko zerbait dio Gipuzkoako foruak bere XVIII. Tituluaren 8. Kapituluan. Araban ere, 1493. Urtean Errege Katolikoek onartu zutenetik, merkataritzarako askatasuna zegoen.

4. Gertakarien kontakizun garaikideak ez zituzten matxinoek idatzi; jazarritakoek berek edo euren gertukoek idatzitakoak dira.

Asteartean, hilak 6, hiribilduko biztanleak, ordura arte ikusle gisa euren etxeetan ezkutatuta egon eta gero, beren egoitzak defendatzeko prest agertu ziren, nahiz eta ez dirudien erakutsi zuten erresistentzia gehiegizkoa izan zenik⁵. Hala eta guztiz ere, nekazariak ez zuten berriro Bilbo inbaditu, eta hiribildutik ateratzen ziren eskutitzak eta eskabideak geldiaraztearekin konformatu behar izan zuten, gobernurantz zihoazen gutunetan traizio-frogak aurkituko zituztelakoan.

Bilboko gertakizun larriak ez ziren lehenak ezta azkenak ere izango aduanen lekualdatzea gauzatu zenetik. Izan ere, matxinadaren tirabirak 1718ko martxotik 1719ko urtarrilera luzatu ziren. Hala ere, Bilbon gertatutakoaren garrantziak protesta-ekintzak beste hainbat herritatik heda zitezen lagundu zuen, nahiz eta hedapenak intentsitate ezberdinetako oihartzuna lortu.

Irailaren 10ean Busturiko merindadeko zenbait elizate Bermeon aurkeztu ziren. Matxinatuak sei pertsona hil zituzten egun horretan, hauen artean Martin Escóiquiz, Bilboko bigarren alkate ohia, eta bere hiru senitarteko. Aurreko egunean zenbait etxe erre zituzten Gernikan.

Gipuzkoan lehen errebolta agerraldia hilabete beranduago izan zen, Bizkaitik gertuen dagoen eskualdean, Goi Deba aldean eta Mutriku hain zuten ere. Denbora-tarte hori larri-larri bizi behar izan zuten batzuek; Otazuk honela dio: «Pentsatzekoa da gipuzkoar klase meneratzailearen izua Bizkaikoa bezain odoltsua izan zitekeen matxinada baten aurrean, aduanen aitzakiaz bere kontra baitzeturren» (Otazu, 1979: 239).

Urriaren 15ean Bergarako hiribilduan ehun bat gizon armatu batu ziren, baina orduko hartan alkateak lasai zitezen lortu zuen. Azaro hasieran, ordea, Elgeta, Arrasate eta Leintzeko haranetik zetozen nekazariak Bergarako alkateari zenbait dekretu sinarazi zioten. Bere burua arriskuan zegoelakoan ihes egin zuten bergararren artean Rocaverde-ko markesa eta Juan Antonio Recalde bilbotarra ditugu. Markesa Diputazioak Madrilera aduanen arazoa konpontzeko bidali zituen ordezkarietako bat zen. Zalantzan jartzen duten datuak egon arren, badirudi bi gizon horiek Otxandion erahilak izan zirela. Markesak buruturiko kudeaketa txartzat jotzen zuten matxinatuak eta horregatik bihurtu zuten euren gorrotoaren biktima, markesak berak susmatu bezala; urriaren 12an Madrilera Antonio Idiáquez-i bidalitako gutun batean honako hau zioen Rocaverdek:

(...) dicen que la plebe tiene dispuesto un memorial para presentarle [udaletxeari] pidiendo con arrogancia a la villa [Bergara] que decrete que no se permitan Aduanas para lo qual se armen todos los vecinos, padre por hijo, y se ha-

5. Fernández de Pinedok ondokoa azpimarratzen du: «Bilboko biztanleen pasibotasuna hilaren 4an eta 5ean nekazarien matxinadaren aurrean, neutraltasun hori hauen aldekatat jo behar dugu, eta erasotako gorenaren alde klero erregeladunak izandako jarrera argia eta irmoa», eta, ondorioz, hiribilduak matxinoen kontra erakutsitako erresistentzia ez zela gehiegizkoa izan. Jazoeren kronika kontraesankortzat jotzen du zera esatean: «bilbotarrek armak hartu zituzten, baina horrek ez zuen sahiestu nekazari-errepublikaren bat hirira sartzea (...). Ematen duenez, egun horretan biztanleriak ez zien nekazariak kontra gogor egin» (Fernández de Pinedo, 1999: 393-394). Baina irailaren 6an gertaerak gero eta arriskutsuagoak bihurtzen ari ziren: «Nekazariak matxinatu zirenean bilbotarrak ezer egin gabe gelditu ziren. (...) Bilboko herritarrek armak hartzea erabaki zuten inguruetako nekazariengandik babesteko, bolbora bezain bizi zabaldu baitzen Somorrostro, Portugaleta eta beste herri batzuetara...» (Porres, 1998: 266).

gan todas las demás prebenziones para esta resistencia y este decreto lo firmen todos los de la primera distinción y que si no lo quieren firmar harán con ellos la más rigurosa demostración (...); este País se pierde miserablemente por el mal exemplo de Vizcaya (Otazu, 1979: 241).

Koroak ez zuen denbora gehiegi itxaron errepresioaren engranajeak martxan jartzeko. Azaroaren 11rako, Blas de Loya mariskala buru zela, errege-gudaroste bat sartu zen Balmasedatik, bidean inongo oztoporik aurkitu gabe. Nahikoa izan zen soldaduen presentzia matxinada gelditzeko, behar adina beldur sortu baitzuten matxinatuengan. Beste gorabehera batzuen ondorioz, 1722ko abenduaren 16an Felipe erregeak aldarrikatu dekretu batek 1723aren lehen egunerako aduanak barnealdean kokatu zituen, nahiz eta matxinada bukatu bezain laster aduanen presioa asko samurtu. Hala ere, gatazkak ez zituen bere atea itxiko 1726ko abenduko errege-barkamena eta 1727ko Kapituluak iritsi arte.

2. Nekazarien egoera 1718 inguruan

Matxinatu nagusiak, nekazariak, ez ziren talde-protesta burutzeko iraila arte batu. Arrazoa urte horretako uzta txarrekin lotuta egon liteke. Edonola, hain begibistakoa den zerbaiten inguruan ez da oraindik gogoetarik egin. XVIII. mendeko nekazalgoaren azaleko azterketa egiteak balio dezake gogoeta horrekin hasteko.

Argien Mendearen hastapenetan, Euskal Herri hezean oinarritzko produkzio-unitatea baserriak osatzen zuen eta, funtsean, bere ekonomia familiaren autohornikuntza asetzerantz bideratuta zegoen. Hain argi ez egon arren, agian biztanleen eta baliabideen arteko desorekaz hitz egin beharko litzateke. Baserrietako polilaborantzarekin lortutako soberakina nahikoa urria zen egindako lanarekin konparatuz gero: horren ondorioz, bi probintzietako biztanleak, behintzat teoriarik, ezin izaten ziren bertako produkzio soilarekin hornitu. Egoera hori orekatzeko eta produkzio-ahalmenetik gora zebilen populazioari eusteko, beharrezkoak ziren beste jarduerak produktibo batzuk, nekazariak berek edo gizarteko beste talde batzuek bete zituzketenak. Beraz, nekazaritzak merkatuan zeukan barneratze-maila oso txikia zen, baina ez hutsa. Egoera hori azaltzen duen zergati anitz dago, esaterako laborantza-lurren urritasuna, eta garraiobide ez egokiak eragiten zuten garestitzea. Tartean atzerapen teknikoak ere aipa daitezke.

Guztiak horrela jarrai zezan, inongo aldaketarik gabe, berebiziko protagonismoa zuen jabe gorenaren interesek. Elite horien errentak espezializazio bako nekazaritzatik eta bere soberakinak onuraz saltzeko aukera ematen zion erregimen protekzionistatik zetozen eta aukera ematen zioten, nolabaiteko jarraikortasunarekin eta uztak onegiak ez ziren bakoitzean, espekulatzeko. Baina protekzionismoak baserriaren interesari ere erantzuten zion, zeren bere produkzio osoa ez baitzegoen soilik autokontsumora bideratuta; zati batek (baserriaren ustiaketak emandako soberakin urria) merkaturako bidea har zezakeen. Horrela, baserriarrek beren maiztertzak ordaintzeko beharrezko zuten dirua lor zezaketan, edo beste merkaturagairen bat erosteko, edo zerga-zamari erantzuteko (foruei esker ez oso astuna). Beraz, neurri protekzionistek bien onurarako, lurjabe goren zein maizterrentzat, prezio egokiak mantentzeko balio zuten.

Baina egoera horrek noizbehinka ezegonkortasunaren gaitza pairatzen zuen. Oreka horren apurketa ekar zezakeen prezioen igoerak ez zituen bi aldeak modu berean astintzen. Jabe handiari agorraldiek etekin anitz eskuratzeko aukera ematen zioten bitartean, nekazari maizterrei hondamendia ekar ziezaiketean agorraldi berberak. Labordak honela deskribatzen du egoera hori:

Baserrien ustiaketak merkatura egokitu beharra zeukan, beti posible ez zen oreka batean: alegia, diru nahikoa eskuratzeko aukera eman beharko zukeen nekazaritza-gaien eskari iraunkorra eta baserriaren diru-ahalmen eskasetik urrun gera ez zedin adinako merkatu eskaintzaren arteko oreka (Laborda, 1978: 163).

Jakina, nekazari guztiek ez zuten maiztertzaren zama jasan beharrik. 1704an Bizkaian nekazarien % 50 lantzen zituen lurren jabea zen, baina herri batzuetan portzentaje hori % 70era iritsi zitekeen; kasu horretan euskal lursail-nekazariei buruz hitz egiten ari gara (ikus Fernández de Pinedo, 1977). Baina, horrekin batera, kontuan izan beharreko beste datu bat ere egiaztatzen da: 1704ko su-zenbaketa beraren arabera, Bilbo inguruan nekazari jabeen kopuru urria zeukan eskualde zabal bat zegoen. Begoñari buruz ari gara (nekazari lurjabeen % 4,4ko portzentajearekin), baita ere Basauriko San Miguel (%7,9rekin), Deustua (% 15,3rekin) edo Arrigorriagari buruz (% 22), guztiak deskribatu berri dugun uzta txarrek eragin zezaketen mekanismoentzako biktima aproposak. Baina hori bazen Bilbo inguruko jabego-erregimena, egia da ere ez zela egoera berdina beste gune matxinatu printzipaletan. Adibidez, Busturialdeko merindadea osatzen zuten 32 herrietan lurjabeak % 57,9 ziren (Fernández de Pinedo, 1999: 274). Gune matxinatu bakoitzak ezaugarri propio batzuk zituela esango liguke datu horrek, eta ondorioz batzuen eta besteen motibazioen artean pizgarri desberdinak ere egon zitezkeela. Ikuspegi berdinarekin alde legoke Erregimen Zaharreko nekazariak hamabost kilometroko erradioa nekez gainditzen zuela jakitea, hor baitzegoen bere ohiko ekimen-esparrua; «hor zegoen bere mundu erreala, bere mundu erreal bakarra» (Urruti-koetxea, 1986a: 145).

Merkaturatzeari dagokionez ñabardura bat egin beharra dago, halere. Uzta txarrek espekulazioa ahalbideratzen bazuten, ez zen soilik jauntxo alemetatzailen onerako izaten; onura berberak (ziurrenik handiagoak) lortzen zituzten hornigaien merkatarri inportatzaileek, eta, kasu horretan, nekazariei ez ezik nekazari giroko eliteei ere kalte egiten zieten. Gipuzkoako gune matxinatu nagusia Deba harana zergatik izan zen ulertzeko, hor matxinatu ziren herriei dagokien iraganeko gertaera batera jo dezakegu, espekulazioarekin estuki lotua dagoen pasarte batera, alegia. 1694an, XVIII. mendeko bigarren hamarkadako bezain txarra suertatuko zen epealdiaren laugarren urtean, Bergarako hiribilduak Arrasateren eta horrekin batutako Eskoriatza, Gatzaga eta beste batzuen manipulazioak salatu zituen, hauek iritsiak baitziren

a las publicas demostraciones y violencias de detener y hacer vender a la fuerza en ella todo trigo y demas granos que pasan por la dha. Villa a los dnos. Mercados de Vergara embarazando a los que conducen al paso con guardas y multas y prisiones (Fernández Albadalejo, 1975: 95).

Gertakizun horiek Araba eta Nafarroako nekazaritza-guneetako produkzioa murriztu eta espekulatzailen lana erraztu bezain pronto hasi ziren. Ondorioz, ez da

arraroa gari-merkatuaren inguruan gatazkak ikustea, Bergarako adibide horretan bezala. Gertaera horrek berebiziko garrantzia izan lezake 1718an Deba Goieneko herrietako nekazariak Bergarara zergatik joan ziren ulertzeko. Izan al daiteke 1718koa 24 urte arinagoko haserreen errepikapena? Momentuko faktoreak ikusita ez dirudi oso harrigarria. Urrutikoetxea ere Deba Goieneko herrien berezitasunaz mintzatzen da. Bere esanetan, han gertatutakoak «Deba Goieneko herriek Gipuzkoako testuinguru orokorrean bizi duten marjinazioan pentsarazten du. Agian horren arrazoia bere “kokapen erlatiboan” legoke, Gipuzkoako esparruaren aldean duen izaera desberdinean eta Arabako merkatuarekin duen giza zein geografi hurbiltasunean» (Urrutikoetxea, 1986a: 144).

Datu horiek guztiak oso present izan behar ditugu. Haien bitartez frogatzen dugu matxinatuen hedapen geografikoa funtsezko irizpide bat dela matxinada ulertzeko, gune fisiko jakin batek, arestian ere aipatu dugunez, beste gune sozial eta ekonomikoki berezitu bat gorde baitezake (Enríquez, 1988). Ezin da kasualitatea izan Bizkaian matxinaturiko herri gehienak txakolina egiteko mahatsa landatzera dedikatzea, bete-betean merkatura bideratua dagoen produktua baita hori eta, ikusi dugunez, prezio-igoera batek nabarmenki kaltetuko bailuke. Egiazta-tzen da landagai eta erreboltaren arteko lotura ere, garia eta artoa herri-haserreari lotuta baitaude. Eta modu berdinean ez da menturaren eragina 1718ko zein 1804ko matxinada bizkaitarren garapen- eta hedapen-guneak berdinak izatea, hots, Portugalete, Bermeo, Gernika eta Bilboko *hinterland*-ak. Bada, lotura horiek begibistakoak izan arren, oraindik inork ez ditu ikertu, ez frogatu.

Baina itzul gaitezen lursail-jabegora. Jabego binkulatu, aske eta neurri txikia-goan enfiteutikoen izankidetzak hiru probintzien nekazaritza-historiaren ezaugarri printzipala osatzen du. Jabego binkulatuak, portzentajea ugariena ez izan arren, besteak menderatzen eta baldintzatzen zituen. Jabegoaren amortizazioak gero eta lur gehiago uzten zuen merkataritza-zirkuitutik kanpo eta, ondorioz, lur askearen prezioaren gorakada zekarren. Binkulazioaren bitartez, lurra oinordeko ezberdinen artean bana ez zedila lortzen zen, bai eta zorrak kitatzeko erabil zezatela ere. Horrela, lurjabeak bere jabegoa osorik mantentzea lortzen zuen. Baina binkulazioaren aukera ez zeukatenentzat, alegia lur askeen jabe zen nekazariarentzat, zorpetzea lurra galtzeko benetako arrisku bihur zitekeen.

Desbabes horri beste kezka-iturri bat batu beharko litzaioke: esan daiteke belaunaldi bakoitzean lursailaren oinordeak lurra berrerosi behar izaten zuela, zeren beste anaiarrebek heredentzian zegokien lur-arloaren balioa dirutan jasotzen baitzuten, berak ordaindutako dirutan, noski (gogoratu baserriak, txikiak baitziren, gehienetan ez zuela beste banaketarik onartzen, errentagarria izaten jarraitu nahi bazuen bederen). Prozedura horrekin, askotan, baserriarekin gelditzen zen oinordekoa, anai-arrebei ordaintzeko maileguak eskatu behar izaten zituenez, zorpetu egiten zen. Dinamika horrek ekarri zuen Arabako lurralde gehienean lurraren jabetza lurjabe gorenaren eskuetara iristea. Bizkaian eta Gipuzkoan, aitzitik, arazo hori ekiditen ahalegindu ziren. Horretarako, irteera bat bilatu nahi izan zen premua ez zen beste oinordekoak guztiz, edo gutxienez eta ohiko zen legez, partzialki ondaregabetuz. XVIII. mendearen hasieran bi probintzietan hain lursail-jabeen portzentaje altuak egotearen arrazoia litzateke hori. Baina ikusi dugu jabeen

kopurua ez zela Euskal Herri hezean uniformeki banatzen, gutxienez Bizkaiari dagokionez. Eta Gipuzkoako kasuan? Ez dakigu.

Bilboko *hinterland*-a osatzen duten herrietan lur-jabetzaren galera ez zen batere gustagarria izango biztanle gehienentzat. Eta are gutxiago egoera kaxkar horri hornigaien krisi bat batu zekiokenean. Uzta txarrak batzea besterik ez zen falta nekazarien atsekabea maila kezkarrietara irits zedin, eta, hain zuzen, hori bera izan zen 1708az geroztik gertatu zena, nekazaritzarentzat benetan saminez betetako hamarkada ireki baitzuen urte horrek. Fernández de Pinedok dioenez (1999: 399) «gertaera eta zurrumurru hauek guztiak demografia eta nekazaritzaren ikuspuntutik oso gogorra zen hamarkada batean gertatu ziren». Horregatik, ez da kasualitatea nekazariak uztak galduta zeudela ikusi arte matxinatu ez izana, alegia negu gorriaren ondorioak zeintzuk izan zitezkeen sentitzen hasi ziren arte.

Maizter eta jauntxoen arteko harremana gaiztotu ahal izan zuen prozesuak XVIII. mende gutzian zehar luzatu zen dinamikaren hasiera suposatuko luke, eta dinamika horretan ez dugu merkatariaren irudia ahaztu behar. Fernández de Pinedok modu honetan adierazi du:

Nekazaritza-produktuen merkaturatzea ahula izan zen bitartean, anai-arrebak partzialki edo guztiz desheredatzearen sistemak, autokontsumo altuak eta une larrietan zentsu kontsignatiboaren aukerak, egonkortasun handia eman zioten lursailaren nekazari jabeari, baina nekazaritza-produktuak, libreki zein behartuta, zirkuitu komertzialean sartuz joan zirenean, bere ustiaguneak sortzen zituen soberakin urriek ez zioten aukerarik eman akastun merkatuak sortzen zituen irabazpideez aprobetxatzeko, ezta espekulaziotik babesteko. Anai-arreba desheredatuei ordaindu ahal izateko egindako zorrei, hornigaien krisi garaian zitu aleak lortzeko egindakoak batzen zitzaizkien. Orduan izango da nekazaritza-soberakinaren zati bat zirkuitu komertzialaren kontrolpean geratuko den unea, batik bat espekuladoreen aldetik. Uste dugunez, Bizkaia eta Gipuzkoari dagokionez, XVIII. mendean zehar garatzen den etapa litzateke hori (Fernández de Pinedo, 1977: 143).

1718. urtean hori oraindik hasi baino ez den prozesua litzateke eta bere eraginkortasuna finkatzea oso zaila suertatzen da (jakina, ez dauka zerikusirik 1766ko gipuzkoar matxinadan izango zuenarekin). Hala ere, ikusitako egoera larrian zebiltzan nekazariarentzat aduanen lekualdatzeak egoera are larriago bihurtu zuela asmatzea ez da oso zaila, euren erosteko ahalmen ahula oraindik ahulago bihurtzen baitzen. Beraz, esan daiteke datu guztiek nekazarien egoera larria gatazka-iturri garbitzat jotzen dutela, edo, gutxienez, gizarte-tentsioen iturburutzat. Matxinada pizteko nahikoa? Ziurrenik ez. Aurrerago ikusiko dugu aduanen lekualdatzearekin ez zitzaiola soilik kontsumitzaileari kalte egiten eta badaudela gatazkaren leherketan garrantzi handia izan zuten beste faktore batzuk. Oraingoz komenigarria da ez ahaztea gizarte-gatazketan monokausalitatea benetan ezaugarri arraroa dela⁶.

6. Modu egokian Margarita Ortegak dioen bezala: «Ez da erreza altxamendu horietan (urrialdietakoetan) hornikuntza konkretu baten faltaren kontrako gaitzespena soilik aurkitzea. Sarri zenbait protesta-arrazoi nahasten ziren eta, ondorioz, erlazio sozialak edo nekazari-komunitateen produkzio-erlazioak zaildu egiten zituzten» (Ortega, 1993: 103).

3. Matxinatuen udal-antolakuntza

Nekazari-bizitzaren antolaketan erakunde printzipala udalerria zen, eta hain zuzen udal-biltzarretan ernamuindu zituzten matxinatuek euren *modus operandi*-aren haziak. Hala ere, ikusi beharko litzateke udalerrri matxinatuek zein ezaugarri komun zeukaten, edo ezaugarri horiek biztanle-kopuru jakin batek soilik betetzen zituen ala ez, zeren jakina baita ez zutela elizate guztiek modu berdinean funtzionatzen. Probintzia bakoitzak berezko zuen funtzionamenduaz aparte, udalerriko bizitza politikoak izan zezakeen irekitze-maila ere kontuan hartu behar dugun ikerketa-ardatz garrantzitsu bihurtzen da, zeren politika horren oligarkizazioak, jada hiribilduetan gertatzen ari baitzen, nekazarien talde-erantzunaren gaitasuna murrizten baitzuen⁷.

Bizkaitar nekazarien kohesio sozialean berebiziko papera betetzen zuten elizateek, eta era berean, ikusi dugunez, eurek funtsezko papera bete zuten matxinadan. Azpimarratzekoa da gizarte-kohesio hori foru-erregimenaren aurretikoa zela eta foralitateara egokitu behar izan zela iraun ahal izateko. XVIII. mendearen hasieran elizateak nekazari-bizitzan funtsezko unitate bezala agertzen dira, eta aukera ematen zuten, maila juridiko zein politikoko komunitateak izanik, oinarrizko solidaritateak (familiar, sozial eta ekonomikoak) sendotzeko.

Elizateak (gogoratu ez zirela guztiak matxinatu) ordena politikoan Bizkaia osatzen zuten 105 herriak ziren, alegia, Bizkaiko zatirik handiena (Bizkaiko erdigunea gehi Durangaldea eta Enkarterri). Elizateek betetzen zuten lurraldeari Lur Zabala (*Tierra llana*) edo aitonon semeen gunea zeritzon, bertako biztanleak, teoriar berdintasun juridikoan bizi zirelako. Eskualde hori zen nekazari-guneetako gorenek, alegia jauntxoek, kontrolatzen zutena, euren eskuetan baitzegoen, besteak beste, Jaurerriko gobernuaren kontrola.

Lur Zabaleko biztanleak baserritan sakabanatuta zeuden eta, sarri, zaila zen zein udalerritakoak ziren jakitea. Halaber, udalerrri horiek zazpi merindadetan banatzen ziren: Uribeko merindadea (horkoak ziren irailaren 5ean Bilbora jaitsi ziren elizate guztiak: Basauri, Begoña, Barakaldo, Erandio, etab.), Busturikoa (Bermeo eta Gernikako gertakizunen protagonistak izan ziren elizateek osatua), Arratia eta Bediakoa, Markinakoa, Zornotzakoa, Durangokoa eta Enkarterrikoa.

Elizate bakoitzak fiel bat edo bi izaten zituen, hots, urtero aukeratzen zen udal-autoritate gorena. Fielak Korrejidorearen eta honek Gernikan zuen ordekoaren menpeko epaileak zirela esan daiteke. Udalbatza Irekietako buru izaten ziren, baina, horretaz aparte, udal-zergak bildu, herriko jaiak baimendu, ordena publikoa zaindu eta polizia-funtzioak bete behar izaten zituzten. Fielak zozketa edo zakuratzte-prozesu baten bitartez aukeratzen ziren, baina sistema sasidemokratiko horrek ñabardura ugari behar du. Aukeratuak ez ziren normalean edozein izaten. Esan daiteke gutxienez zalantzarria dirudiela Labordak dioenak:

7. Egun Antzinako Erregimenean Gipuzkoako eta Bizkaiko udalerrien funtzionamenduak elkarrekin konparatzea zail suertatzen da. Adolfo Gonzálezek dioen moduan: «Gipuzkoako tokian tokiko administrazioa ikerlan orokor baten beharrean dago, eta hori egitea ezinezkoa izango da lan konkrituak egiten ez diren bitartean, hiribildu bakoitzari zuzenduak, eta sakonki gauzatuak, are gehiago biztanleria era askotara antolatuta zegoela kontuan hartzen badugu» (González, 1995: 155). Bizkaiko egoera bestelakoa da Martínez Ruedak bere lana argitaratu zuenetik (1994).

Garrantzitsua da azpimarratzea hiribilduetan gertatzen zenarekin konparatu ezkerro, non erregimen zentsitarioek oligarkien alde jokatzeko baitzuten, herrietan ez zegoela baldintzapen berezirik; eta ez soilik nekazari maizter kopuru handia zegoeneko tokietan ez dirudielako baldintzapen berezirik egon ez denik, baizik eta kargu horiek goi mailakoek bete izan arren, nekazari eskolagabeekin zuten ohiturazko eta efikaziako logikagatik, euren jokabidea auzokideen interesekin bat etorri dela dirudielako (Laborda, 1978: 161).

Fielek Batzar Nagusietara euren elizateen ordezkari bezala joateko ohitura zuten eta ondorioz, gutxienez teorikoki, Jaurerriko eliteen jokabideari zegokionean euren auzokideak ondo informatuta izaten zituzten. Urtean zehar lau edo bost aldiz biltzen ziren meza nagusia ospatu ondoren elizaren arkupean, Udalbatza Irekiak zeritzaten batzarrak burutzeko. Hala ere, besterik gabe fielen jokabidea komunitatearen interesekin bat etorri zela esatea, Labordak egiten duen moduan, «definizio hobeto baten faltan, euren jokaeran ordena baten arau eta konbentzioetara atxikituta» (1978: 161), arau eta konbentzio horietan sakondu gabe, neurri handi batean, gatazkaren giltzarrietako bat izan zitekeen faktore bati bizkarrara ematea da, nahiz eta bere kasuan aztergai printzipala berreskurapen komertziala izan eta ez matxinada bera. Fielen jokabidea zein izan zen konprobatzeko beraiei zegokien zenbait ezaugarri izan beharko genituzke kontuan, halaber horiek elizate batetik bestera alda zitezkeen ezaugarriak zirela ahaztu gabe. Adibidez, hainbat herritako udal karguen aukeraketa sisteman, erabaki politikoak hartzeko eskubidea baserriaren jabe izatera estuki lotzen zen, maizter kopuru handiak zeuden herrietan jauntxo absentistek herriaren erabaki politikoetan eskua sartzeko aukera gehiago emanek. Baina ez zen horrela kasu guztietan. Beste adibide bat litzateke aurrekoarekin erabat desberdina den hau: herri batzuetan maizterrek pairatzen zuten bazterketari aurre egin zitzaion, zenbait kasutan arrakasta izanik; 1630. urtean, adibidez, Begoñako auzokideek Korrejidorearengandik euren eskakizunen aldeko sententzia bat lortu zuten. Esaten zuten z

Es injusto decir que los inquilinos por serlo no han de tener voz ni voto pues no por ser inquilinos dejan de ser tales vecinos y acudir a las cargas de la dicha anteiglesia a que no acuden los dueños ni se puede fundar en razon ni costumbre que vivir uno en casa o hacienda agena no goze de los oficios y de los demas actos honoríficos de la republica y quando esto no hubiese lugar menos pueden pretenderlo los que no viven en la dicha Anteiglesia (Martínez, 1994: 74).

Bilbo inguruko elizate gehienek euren udal batzarretan talde ekintza bat antolatzea erabaki bazuten, dirudien bezala, orduan zilegi litzateke pentsatzea euren udal funtzionamenduen artean antzekotasun nabarmenak zeudela. Gertakizunak ikusita maizter gehienak elkarrekin aritu zirela ematen du, Margarita Ortigaren esanetan nahikoa gauza arraroa litzatekeena. Ohizkoena «herrietako nekazari maizterren arteko leiha gogorra izaten zen, maiztertzat epealdi berri baten hasieran lur hoberenak eskuratzeko zain egoten zirelako. Dokumentazioak maizterren arteko elkarkonpontze eza ulertzeko adina frogaz ez ezik, indarrak batu zitzaizkien arazoak ulertzeko aukera ere ematen digu» (Ortega, 1993: 19). Banaka aztertu beharko litzateke elizate matxinatu zein ez matxinatuen udal funtzionamendua, azkenik herriko politikaren dinamikak matxinadan eraginik izan zuten ala ez ikusteko.

Hori jakin bitartean, pentsa dezakegu iraila iritsi aurretik baserritarrek, nor bere elizatean, luzaro eztabaidatu behar izan zutela bizi zuten egoeraren larriaz. Fielak argiro azalduko zuen zer zen Batzar Nagusietan tratatutakoa, zer zen merkatarik nagusiek, artilearen merkataritzarekin etekin galantak lortzen ari ziren berberak, baita lurjabe gorenek (nagusiki horiexek), nahi eta egingo zutenaz, eta, azkenik, Madrilerak eskakizunak bidaliz ezer gutxi lortuko zela. Hori guztia jada hedaturik zeuden zurrumurruek kontuan hartu gabe, zeintzuek esaten baitzuten «Bilboko eta Jaureerriko gobernukoek zituzten interes baliotsuengatik askatasunaren defentsan etsiko zutela eta gai zirela herria saltzeko zerbait eskuratzearen» (Guiard, 1971: 15).

Zalantzarik gabe, gatazkaren ulermena (edo, gutxienez, ulertzeko saioa) bi probintzietako gizartea osatzen zuten talde ezberdinen interes nahasien azterketatik etorri behar da. Eta, horregatik, orain gure ikuspegia ireki eta aduanen lekualdatzearekin ea beste jarduera ekonomikorik kaltetzen ote zen galdetu behar dugu. Erantzuna baiezkoa da, jarduera hori kontrabandoa baitzen, hau da, probintzia barneko gizarte-erlazioak baldintzatzen zituen sustrai sakoneko merkataritza-jarduera, mende-hasiera horretan foruarekin estuki lotua. Beraz, egin behar dugun hurrengo galdera argia da: zertan lagun zezakeen kontrabandoak batik bat nekazariak burututako istilu larriak gerta zitezen?

4. Baserritarrak eta kontrabandoa

Historikoki, Bilboko merkataritzak artile gaztelaua kontratatzeke eta esportatzeko pribilegioarekin hartu zuen garrantzia. Europako iparraldera esportatzen zen artilearekin batera beste produktu batzuk ere bidaltzen ziren, adibidez, ardo, olio edo larru gaztelauak, baina baita Bizkaiko burdina ere. Joan-etorriko bidai horretan inportazio-produktu bezala, aitzitik, manufakturak gailentzen ziren, batik bat oihalgintzarekin loturik zeuden manufakturak. Denborarekin trafiko hori konplikatu joan zen eta, horrela, Iparraldeko merkaturak Bizkaiko burdinaren eskaria jaitziz zihoan bitartean, inportazioko oihalekin batera, gero eta gehiago, ingeles eta holandarrek espainiar domeinuetatik lapurtutako amerikar merkantzia exotikoak etortzen hasi ziren. Hala ere, Bilbok zeukan merkataritza-boterearen oinarria oraindik artile-esportazioan zetzan (1714rako artile gaztelauaren % 49). Hori ez zen aldatu. Eta merkataritza hori bere osotasunean bilbotar merkatarik handi batzuek kontrolatzen zuten.

1707ko otsailaren 19an, Oinordetza Gerrak aurrera jarraitzen zuen bitartean, Hego Euskal Herriko portuek, penintsulakoak baino hiru urte arinago, holandar eta ingeles produktuak inportatzeko baimena eskuratu zuten. Trafiko horretan aipatu oihalezko manufakturak eta zenbait amerikar produktu edo *colonial* nagusitu ziren, hiru izanik garrantzitsuenak: kakaoa, azukrea eta, batez ere, tabako-orria. Libreki iristen ziren amerikar produktuak berriro ere merkaturatzeko prest agertu ziren euskaldunak, begiak Gaztelan jarrita.

Kolonialek izango duten garrantzia ez da soilik merkataritzara mugatuko. Jarduera horretatik eratorritako ondorioek gizarte-mailan ere izango dute oihartzuna. Beraz, komertzio horren eragin soziala ezinbestekoa suertatzen da matxinada

ulertzeko, nahiz eta, pentsa daitekeenez, oraingoan ere haren eragina ez izan ezinbestekoa gatazkaren eztekarako.

Noski, kolonialen komertzioa zela-eta Koroak zeharkako diru-galerak izaten zituen. Horien errudun nagusia tabakoaren kontrabandoa zen. Bere agerpen eta kontsumo hazkorrekin batera, XVII. mendean, Errege-ogasuna azkar asko jabetu zen tabakoaren zamatzek altxorrerako ekar zezakeenez, eta, horregatik, *expendeduria* edo estanko ofizialek egiten zutenetik aparte, beste edozein tabako-salmenta debekatuta zegoen. Baina Koroak inposatu nahi zuen kontrolak ezinezkoa zirudien; Ameriketara zein Espainian kontrabandoa oso hedatuta zegoen eta, modu horretan, ekarritako tabako-orriak estankatuarekin aise leihatzen zuen. Egoera horren ezaugarri bitxi bat zen kontrabandoa erauzi ahal izateko gastuak kontrabandoak berak sortzen zituen galerak baino handiagoak zirela. Hala ere, monarkiak denbora bat beharko zuen "bitxikeria" horretaz jabetzeko.

Beraz, euskal probintziak, askatasun foralaz baliatuz, itsasontzi baimendu erraldoi bilakatu ziren, momentu oro itsasotik hornitua eta Gaztelarantz kontrabandisten korrante agortezina bidaltzen zuena. Eta, hain zuzen ere, hori zen arazo nagusia, zeren zama bako salmenta euskal probintzietan burutzeak ez baitzuen gehiegi kezkatzen Koroa. Ogasunak ez zukeen gauza handirik lortuko euskaldunek kontsumitzen zutenagatik muga-sariren bat ordaindu behar izan balute. Hiru probintzietako bakoitzak 90.000 biztanletik gora ez izateak eta gehiengoaren erosteko ahalmen txikiak hala frogatzen dute. Benetako kaltea, diogunez, Gaztelara zihoan kontrabandoak zekarren.

Negozioaren garrantzia zenbatekoa zen ikusteko, nahikoa da datu esanguratsua honetara jotzea: 1727. urtean egindako kalkulu baten arabera, Gaztelako estankonetan hiru milioi libra tabako-orri saldu ziren (beraz, salmenta ofiziala), baina momentu horretan kalkulatzen zen kontsumo erreala sei milioira iristen zen. Antza denez, euskal probintziak (nagusiki Bizkaia) arduratzen ziren diferentzia hori osatzeaz, eta burokrazia borbondarra, nola ez, eskandalizatuta zegoen hain iruzur handia ikusirik. Portuan libra bakoitzeko beloizko bi erreal ordaintzen ziren eta, prestatu eta garraiatu ondoren, 15ean saltzen zen Gaztelan, eta, hala eta guztiz ere, salneurri hori estankatuaren erdia-edo izaten zen. 1718ko azaroan Blas de Loya Bilbon sartu zenean, bertan egindako erregistro batean zazpi tabako-orri ezberdin aurkitu zituen, guztira 1.750.994 libra osatzen zutenak.

Merkataritzak zekartzan iguripenak hain probetxuzkoak izanik, ez da harritzekoa XVIII. mendearen hasieran hainbat euskaldunek, honetan edo hartan, aurrean zuten aukera aprobetxatu eta merkataritzan parte hartu izana. Logikoa dirudi pentsatzea oinetxe-sistema heredentziazkoaren biktima askok, ondoko semeek, merkataritza-ekimenean bizimodua ateratzeko aukera ikustea. Noski, horietako gehienek ez zeukaten merkataritza tradizionalerako esparru mugatuan parte hartzeko aukerarik, eta, horregatik, beste irtenbiderik ezean, produktu berrietara bideratu behar izan ziren, eta produktu berri horien artean batik batik tabakora, jakina. Aduanetako Juntaren iritziz, kontrabandoa aritzen ziren pertsonen ohiko merkataritzan aritzen zirenek baino askoz gutxiago zuten galtzeko, zeren «como sus caudales no tienen otros fondos que los arrojados de su temeridad se animan poco advertidos a el riesgo; creyendo es menos mal padecerle que

vivir en continua miseria» (Laborda, 1981: 81). Horiekin batera, merkataritzak beharrezko zituen lanak eginez, nekazariak ere izango zuten euren ekonomia osatzeko parada.

Balmaseda, Orduña, Otxandio edo Debatik portuetara doazen haranetako elizate eta hiribilduak merkataritzari oso lotuta ageri dira. Baina batez ere portuetatik gertu daudenetan bihurtzen da lotura hori benetako menpekotasun harreman. Izate horrek herrialde matxinatuen beste ezaugarri bat dakarkigu, zeren horiek merkataritza-gune handien ingurukoak baitira, Bilbo izanik gailentzen dena. Herrialde horien itxura barnealdekoen antzerakoa zen, desberdintasun batekin: merkataritza-gune nagusien ingurukoak merkataritzaren dinamikan murgilduta zeudela.

Gogoratu behar da merkataritzaren goraldiaren aurretik nekazarien ekonomia txiroa osatzeko bazeudela beste ekimen osagarri batzuk. Agian jarduera osagarri garrantzitsuenak burdinolekin lotura zutenak ziren⁸. Basoa bota, mea atera eta garrantiatzeak, edo ikatza egiteak esku askoren premia zuten. Baserritarrak prest zeuden horiek guztiak egiteko⁹. Baserriko ekonomiarentzat burdinolak osagarriak izan baziren eta izaten jarraitzen bazuten, XVIII. mendearen hasieran merkataritza horiei batuko zitzairen osagarri berria izango da.

Jakina, merkataritzaren pasabide nagusietan ez ziren soilik arrantzaleak edo nekazariak bizi. Izan ere, eskualde horretako biztanle-dentsitatea barnealdekoa baino altuagoa zen, produzitzen ez zituzten produktuen kontsumitzaile-kopurua bezalaxe. Modu bertsuan, kostaldeko hiribildu garrantzitsuenen gertuko eskualdeetan diru-ekonomia askoz errotuago zegoen eta luraren jabeago eta ustiakuntza-erregimenean aldaketa sakonak eragin zituen. Arestian esan dugu hemengo maizterren ehunekoa beste eskualdeetako baino askoz altuagoa zela, nekazaritza-produktuen eskari handiagoak eta errenta zein lur berriak eskuratzeko aukera gehiago ikusita; honek argi erakusten du eliteek nahiago izan zituztela eskualde horiek. Baina zein elitez ari gara? Garrantzitsua da argi izatea: «zona horietan jatorriko jabeak zein maiorazkoetako elite zaharrak jardun dira» (Laborda, 1978: 165).

Egin berri dugun deskribapenaren ostean, ez gaitu harritu behar aduanen lekualdatzeak foruen babespean sortutako interesen arteko oreka apurto izanak. Interes ezberdinen arteko oreka zertan zetzan hobeto ulertzeko, ikus dezagun nola funtzionatzen zuen merkataritzak bere motetako bakoitzean. Batetik merkataritza handia zegoen, nagusiki artilearen esportazioak ordezkaturak. Talde horri hornikuntza-produktuen eskaintza behar adinakoa izatea komeni zitzaion eta horretan ahalegindu zen. Baina hornigaien eskaintza ziurtatu nahi izateko arrazoia ez zen merkataritza nagusiek altruismoz probintzia osoari hornitzeko aukera eman nahi

8. XVII. mendean krisia pairatu ondoren, XVIII.aren lehen erdialdian euskal burdingintzak atzerriko merkatuak (batik bat britainiarra) berreskuratuko zituen eta goraldi horri barne-eskariaren igoera ere batuko zitzaion. Hala ere, berreskurapena ez zen 1715 arte hasiko. Beraz, matxinada gertatu zenean, burdingintzaren egoera hobetzen ari zen, nahiz eta oraindik hobekuntzaren hastapena baino ez izan (goraldiak 1745 arte iraungo zuen) (Bilbao eta Fernández de Pinedo, 1988: 147).

9. Hain zuzen ere burdinolekin zuten loturatik eratorriko zen *matxinada* hitza. Olagizonei *matxino* ere deitzen zitzairen, euren jagolea zen *Martin*-etik hartua. Baina olagizonei ez ezik *matxino* hitza burdinolentzako lan egiten zuten nekazariak izendatzeko ere erabiltzen zen. Gerora, *matxinada* terminoa euskaraz albaramendua, errebolta, mutina edo asaldaketaren sinonimotzat hartu izan da.

ziotela; hor dago bestela baserrien autosufizientzia, eskari horrek euskal merkatu integratu bat ez zuela frogatzeko. Nekazariak ez ziren biztanleak ohi baino ugariagoak ziren herrietan (batik bat Bilbon eta inguruetan) hornikuntza ziurtatzeaz arduratu ziren, bertan bizi zelako beraientzat lan egiten zuen jendea. Merkatarari handiarentzat negozioa Gaztelan egonik, merkataritza horrek aberastasuna ematen jarrai ziezaion behar-beharrezkoa zuen hegoaldera zihoan merkataritza-bidea ondo zaintzea eta bertan bizi zirengan gorrotorik ez piztea. Dirudienez, modu horretan biztanleriaren zati baten hornikuntza ziurtatu zen; merkatarari handiek ez zuten hornigaien inportazioa negozio bezala ikusi, euren benetako interesentzako berme gisa baizik.

Beraz, portuetatik eta merkataritza-bideetatik gertu bizi zen jende askok bere lanaren bidez aipatu interesen oreka sendotu zuen, eta bide batez merkataritzak beharrezko zuen azpiegitura sortu. Merkataritza handiarentzat lan eginez, kostaldeko portu txikietatik (itsasoa izanik portu handietara iristeko biderik errazena), zama-ontzixka, gabarra edo antzeko ontziaz baliatuz, pertsona horiek polikultiboaren ekonomiak zekartzan mugak gainditzea erdietsi zuten. Noski, helburu berdinarekin burdinola zein gaztainekin lotura zuten jarduerak ere garrantzia izaten jarraitu zuten. Gure gaiari dagokionez, inporta zaiguna zera da: Oinordetza Gerra bitartean, zenbait merkatarik nekazariak haien interesen partaide bihurtzea lortu zutela eta oso merkataritza-egitura konplexua sortu zutela.

Badirudi merkataritza-bideetatik gertu zeuden herriak ere aipatu berri dugun egoeraz ondo baino hobeto aprobeztatu zirela. Taberna eta bentak zeharo ugaritu ziren komertzioaren eraginez. Gainera, baserrien soberakin-apurren kontsumitzaile izanik, bertako ekonomiak osatzeko ere balio zuten. Baina ez zen hori merkataritzak zekarren onura guztia. Askotan herri-jabegoak (*bien de propios*) zirenez, tabernen zein benten erabileragatik elizateek errenta bat jasotzen zuten, eta hau banakuntzak (*repartimientos*) ordaintzeko erabil zezaketen.

Hala ere, merkataritzaren goraldiak ekarritako gizarte-oreka berriak oso oinarri ezegonkorrak zeuzkan: foruetan biltzen ziren askatasunen beharra zeukan; beste hitz batzuekin esanda, aduanak barnealdean mantentzea ezinbestekoa zitzaion. Baina ez zen hori bakarrik. Oreka horren arazo gehitua litzateke askotariko interesek gizarte-antolaketa sortu zuten nahas-mahasa, aduanen lekualdatzeak agerian utziko zuen lez.

Gipuzkoari dagokionez, zaila da kontrabandoak norainoko eragina izan zuen zehaztea. Ziurrenik ez zen Bizkaiko kontrabandoaren parera iritsiko, baina ukazina da

1710etik aurrera (tabakoaren) kontrabandoak bolumen izugarria lortu zuela, legez kanpoko merkataritzako produktuen artean lehena izatera iritsi arte. Goraldi horren arrazoia Baionan eta Donibane Lohizunen produktu horren fabrikak jarri izana izango zatekeen (González, 1994: 232).

5. Hirukiaren erpinak: landatar oligarkia, merkataria eta nekazariak

Zenbait autorek matxinada XVIII. mendearen hasieran aurrez aurre suertatu ziren bi munduren arteko talka baten ondorio gisa ikusten du. Batetik burgesia

hiritarra legoke, bestetik landatar aristokrazia; lehenek Bizkaiko merkataritza-kapitalismoak bizi zuen goraldiarekin etekin franko ateratzen zuten (oraindik Donostian hastear zegoen prozesua); bigarrenak, berriz, Jaurerriaren gain iragan hurbilean izandako kontrol handiagoa berreskuratu nahian zebiltzan¹⁰. Eta, hain zuzen ere, merkataritzaren gorakada litzateke bi talde horien arteko harremana okertu izanaren arrazoia, eta areriotasun hori are sakonago bihurtu zuten, jauntxoek errentak kaltetzen zituzten heinean, urte horietako uzta txarrekin. Baina hala izateak matxinada bera borroka horren antzeztokia izan zela esan nahi ote du? Ondo ulertu behar da: bi munduren arteko talka diogunean, ez gara matxinada bera norgehiagoka horren antzeztokia izan zenik esaten ari, bere ondorioa izan zela baizik. Argi dezagun zein ezberdintasun dagoen bi azalpenen artean, hor aurkituko baitugu gatazkari eman zaizkion historiografi interpretazio ezberdinen giltza.

Aipatu bi taldeen arteko hika-mikak mendearekin batera hasi ziren areago-tzen, alegia merkataritza berreskurapen bidean jarri zenetik. Hala ere, 1718ko gatazka ezin da ulertu soilik bipolarizazio horretan oinarrituz, batez ere modu zurruneko bipolarizaziorik existitzen ez zelako. Landatar eta hiritar munduen arteko elkarbizitza kontrajarririk dauden bi mundu bezala erakusten duen irudia baino askoz korapilotsuagoa zen egiazko errealitatea. Ikusi dugunez, oso oreka ezegonkorrean zegoen bizitza korapilotsua, gainera. Argi dago matxinadan jauntxoak zigortzen nekazari- zein merkatar- giroko jendeak aritu zirela (beraiek izan baldin baziren zigortu bakarrak), baina horien artean ez zeuden ez merkatar- guztiak ezta bi probintzietako nekazari guztiak ere (zeintzuei aduanen lekualdatzeak ere printzipioz kalte egin behar zien); gainera, gauza gehiago nahasteko, ezin daiteke esan jauntxoak berak ere merkataritza erabat aldatuak zeudenik. Esan bezala, azkenean historiografiak erakusten diguna baino askoz gizarte-errealitate korapilotsuagoa dakusagu.

Alde horretatik, Gipuzkoako kasuak xehetasun bat merezi du. Matxinada aztertzen duten lan gehienak (denak ez esateagatik) Bizkaiko gertakarietan zentratzen dira, eta Bizkaiaren barruan Bilbokoetan. Gipuzkoan gertatutakora hurbiltzeko, kontuan izan behar dugu bertako burgesiak ez zuela Bizkaikoaren garapen berdina eskuratu. Eta, ondorioz, merkatariek jokatu zuten papera printzipioz ez zatekeela Bizkaikoen mailakoa izan beharko. Gipuzkoan matxinada azal dezaketen arrazoiak beste batzuk izan ote ziren orduan? Ziurrenik ez, baina ez dago hori zehaztu duen lanik. Gipuzkoako adibidean gehien sakontzen duena Otazu da, eta inplikazio ekonomikoak aipatzen ez dituen arren, bere lanak argibide nahikoa ematen du matxinatuen jazarpena izan zuten pertsonaiak ezagutu ahal izateko. Otazuk jasotzen dituen Gipuzkoan gertatutakoaren kontakizun garaikideetatik, Rocaverde-ko markesaren eskutitzak barne, honako hitz hauek azpimarratzen ditu matxinatuak identifikatzeko: *plebe*, *gente común* eta *dependientes*. Eta jazarriak, ordea: *los de la primera distinción*. Gainera, azken horiei buruz zera esaten du: «familia horiek guztiak zuzenean edo zeharka Azkoitiako Idiakeztarrekin, alegia Loiolako antzinako jaunen oinordekoekin, erlazionatuta daude» (Otazu, 1973: 250). Itxura batean argi dago nortzuk diren gipuzkoar matxinatuen helburu.

10. García de Cortázarrek eta Monterok, beste zenbaitzuen artean, egoera hori deskribatzen dute ondokoa esanez: «ezberdinak eta kontrajarririk ziren bi estruktura zeuden: tradizionala, nekazaritza-produkzioari lotua, eta hiritarra, zeinen balekotasuna sendotzen ari baitzen 1699-1700etik» (1988: 142).

Pixkanaka protagonista guztiak identifikatuz goaz. Matxinatuak nagusiki nekazariak izan ziren¹¹, baita zenbait artesau eta kostaldeko herrietako arrantzaleak ere. Baina horiekin batera bazeuden produktu kolonialekin jarduten ziren merkatariak ere (kontrabandistak), zeintzuen ordurarteko eskakizuna nabarmena izan baitzen: aduanak kostaldera eramaten zituen dekretuaren ezeztatzea. Hala ere, euren ekintzen bortizkeriak gehiago pentsarazten du lekualdatze horren arduradunei (arduradun baino gehiago onartzaile esan beharko genuke, erabakia Koroak hartu baitzuen) zuzendutako zigor batean. Dirudienez, jazarriak (ñabardura batzuk egitea zilegi bada ere) honako hauek izan ziren:

a) Landa-esparruko jauntxoak, batzuk elizateetako hamarrenak jasotzen zituzten patroilakoak izanik¹².

b) Probintziako gobernuko karguak. Kontuan harturik gobernu hori jauntxoek kontrolatzen zituzten Batzar Nagusiek aukeratzeko zutela.

c) Aduanako kontrol berriarekin loturik zegoen jendea (zaintzaileak, etab.).

Esan liteke merkatarien arrakasta hazkorrak sortzen ziren bekaizkeriagatik, jauntxoek haien lurrak lantzen zituztenen haserrearen biktima izaten bukatu zutela (Bilboko adibidean gutxienez, inguruko nekazari gehienak maizterrak baitziren), eta nekazari horiek kontrabandistekin batera, era berean, aduanen lekualdatzearen biktimak izan zirela. Matxinada, horrela, bi munduren arteko aurkaketa ondo litzateke, baina zentzu desberdin batean.

Jauntxoak, euren buruak merkataritzaren arrakastatik aldentuta ikusi eta ondorioz, ahal izan zuten guztietan, garapen komertzialari oztopoak jartzen ahalegindu ziren, edo, behintzat, hala dirudi gai honi buruz idatzi duten gehienek diotena irakurriz gero. Madrileko administrazioak aduanen lekualdatzea arazorik gabe gauzatu ahal izateko Bizkaia barruan laguntza bilatzeari ekin zionean, jauntxoek merkatariari galga jartzeko aukera ikusi zuten. Antza denez, jauntxoak prest agertu ziren Koroari laguntza eskaintzeko (zerbaiten truke agian?), baina ez ziren laguntza horren ondorioek ekar zezaketena kalkulatzeko gai izan. Merkatarien harropuzkeriari aurre egiteko parada izan zuten une beretik, Jaurerri guztiak jakin zuen jauntxoaren errebantxa iritsia zela. Horregatik onartu zuten, oztopo handirik gabe, merkatariak kaltetzen zituen Koroaren agindua. Eta, uste bezala, lekualdatzeak oihartzun handia izan zuen merkatarien artean. Momentu hori zatekeen merkatari handiek kontrabandotik aldentzea erabaki zuten unea, beraiak

11. Kroniketan matxinatuei hianbat modutara deitzen zaie: *aldeanos, paisanos, gente, gentío, pueblo amotinado y furioso* etab. Baina Ahaldun Nagusia hil zuten momentutik aurrera *chusma infame y cochina, malechores* eta bestelako bihurtzen dira. 1725eko azaroaren 27ko data daraman eskutitz batean, Bergaran, lehendabizikoz *machinos* deituko zaie (Otazu, 1973: 253).

12. Otazuren hitzetan (1973: 238): «Matxinatuek asko erabiliko zuten esaldietako batek zioenez: a los Patronos, dicen, no les han de dar ningún diezmo». Esaldi horren aldera, Fernández de Pinedok galdera batzuk planteatzen ditu: «ba al zuen mutinak klase-borroka izaerarik? Edo, sinesgarriagoa iruditzen zaigun bezala, jauntxoek aduanen lekualdatzean amore emateagatik nekazariak erabilitako beste errepresalia bat baino ez zen izan?» (Fernández de Pinedo, 1999: 393). Agian lotura gehiago izan dezake, Fernández Albadalejok (1975: 96) Gipuzkoako kasurako azpimarratzen duen bezala, 1695-1713 epealdian Koroari eman zitzaizkion dohaintzekin, bere ustez fiskalitatea, arazotan zegoen populazioari eragiten zion heinean, matxinadaren eragile nagusi bilakatu baitzen.

izan baitziren *Factoría de la Renta del tabaco* zeritzanari gehien saldu ziotenak¹³. Heterogeneotzat jotzen genuen talde hura, merkatariena, apurtu egingo da horrela. Merkatarari handien erantzuna Bilboren artilea esportatzeko pribilegioa galtzeko mehatxuarekin neutralizatuta geratu zen, eta dekretua kaleratu eta aduanen lekualdatzea gauzatu bitartean, kontrabandotik aldendu eta eskuak garbitzeko denbora nahikoa izan zuten. Beste askok, ordea, ez zuen halako aukerarik izan. Merkatarari ertain zein txikiek eta ekimen horiekin lotura zuten nekazariak ezin izan zuten irtenbide legalik aurkitu, eta oso egoera larrian gertatu ziren.

Hala ere, jauntxoek argi antzeman behar izan zuten 1718an ez zela momentu hoberena nekazariak ere kaltetuko zituen neurria ezartzeko. Gernikako Batzarren bitartez, lekualdatzea burutu ez zedin eskatuz, jauntxoek Madrilera azken uneko eskaera-eskutiz bat bidali zuten. Antzerako zerbait egin zuten gipuzkoarrek. Ez zuten ezer lortu. Onartu behar da, halere, Koroak hartutako erabakia aldaezina izateaz gain, jauntxoek erabil zituzketen argudioak ez zirela pisuzkoak; garrantzi handiko arazo ekonomiko bi planteatzen ziren: batetik, baliabide gutxiko populazioaren kaltea, bestetik kontrabandoa bezalako ekimen hedatuari egindako eraso. Lehena Madrilen defendagarria, ez ordea bigarrena. Jaurerriko agintariak zalantzak izango zituzten errege-dekretua errekurritzen jarraitu ala ez erabakitze-ko, baina, azkenik, esfortzu handirik egin gabe, gertatu beharrekoaren zain gelditzea erabaki zuten. Lekualdatzea burutu eta denbora gutxira, jada berandu zen errekurtsuaren bideari berriro heltzeko.

6. Azken gogoetak

Bizkaitar adibidea azaltzeko eta urte asko arinago Guiardek planteatutakoari jarraituz, Otazuk matxinadan nekazari-gunearen eta hiri merkataria-aren arteko aurkaketa ikusten du. Zentzu berean, Federico Zabalak antzerako ideia darabil. Horien ustez aduanen lekualdatzearekin elizateek Bilborekin zituzten aspaldiko gaitzondoak azaleratu ziren berriro ere, antza denez ez baitzioten hiribilduari barkatzen besteekiko zeukan handinahia. Ikuspuntu horiei begiraturaz, berehala antzematen ditugu gatazkak planteatzen dituen ulermen-arazoak. Foru-agintaritzak landatar oligarkiaren eskuetan zegoela jakinda, pentsatu behar ote dugu matxinada Bilboko hiribilduaren aurka zuzenduta zegoela, alegia merkataritza-gune nagusia izateaz gain bertako biztanleek matxinatuei erantzuten ez dioten tokiaren aurka? Otazuk ez dauka zalantzarik eta honela baieztatzen du: «benetan 1718ko irailean Bilboko merkataria-aren aurka askatutako haserre kontsumitzaileen haserre izan zen» (Otazu, 1973: 236); baina, Bilboko merkataria-ak al dira haserre horren biktimak? Kontsumitzaileen haserreak beste eragile gehigarri batzuk zituen eta beste helburu batera bideratuta zegoen, nahiz eta berriro ere azpimarratu behar den aduanak kostaldean egonik printzipioz kontsumogaien prezioek gora egin zezaketela. Otazuren hitzetan hori bera gertatzen zen «urtero atzerritik (Baiona eta Nantesetik) inportatzen ziren zituekin (...) eta horregatik protestatzen zuten nekazari kontsumitzaileek, Jaurerriko gorenei (ordena eratuari) euren interesen kontra zihoan neurria ekiditzen behar adina energia jarri ez izateaz salatuz» (ibid).

13. 1714an Errege-ogasunak *Factoría de la Renta del tabaco* delakoa sortu zuen, kontrabandoari aurre egiteko lehen neurri bezala. Tabakoa Gaztelara sar ez zezaten Koroak Bizkaitik atera orduko erosten zuen erakunde horren bitartez; jakina, kontrabandoko prezioetan baino merkeago. Ez zuen bere helburua lortu (Laborda, 1978: 175).

Horregatik protestatzen zuten, bai, baina euren haserreak *golillen*¹⁴ aurkako gorroto sakonago bat adierazten zuten, ahaztu behar ez dugun xehetasun batetik ondoriozta daitekeenez: 1718ko martxoaren 14ko errege-aginduak itsasotik zein lurretik zetozen gari, lekari, ardo, olio eta haragiari muga-saririk kobra ez ziezaie-tela agintzen zuten. Ondorioz, horri dagokionez, aproposagoa litzateke produktu horien guztien inportazioan aritzen ziren merkatarien jokabidea aztertzea, aduanetako muga-sariei ezer egozte baina, eta jokabide horretan ikusi merkatariek benetan hornikuntza espekulazio-maila jasangarri batez ziurtatzen ote zuten, ala alderantziz, nekazaritzaren egoera txarra aprobetxatuz, espekulazioaren bitartez mozkina handitzeaz soilik arduratzen ote ziren. Hala bazen, orduan zilegi litzateke merkataria asaldatuena helburu bezala identifikatzea, kasu horretan eurak liratekeelako kontsumogaien garestitzearen errudunak. Orain arteko ikerketek ez dute aukera hori jorratu.

Beraz, gatazkaren gakoa jauntxo eta merkatarien arteko liskarretan bilatu behar dugula dirudi, abiapuntu bat hartzekotan bederen. Nekazariak ez zioten hiribilduari merkataritzaren gune izateagatik eraso, bertan hainbat jauntxo bizi bide zirelako baizik. Sagarminagak alderdi hori azpimarratu zuenetik (Sagarminaga, 1988: 192-219), Labordaren lana izan da antzerako ikuspegiarekin ikerketan gehien sakondu duena. Otazuk ziurtatzen duenean «XVIII. mendearen hasieran Bilboko familia-oligarkiak ia guztia monopolizatzen zuela» (Otazu, 1973: 238), bere tesia frogatzeko asmoz egiten du, baina bestelako argibidetzat ere har daiteke. Garaiko gizarte-errealitatean sakontzea falta zaio Otazuri; kontrabandoaren inplikazioak, Bilbo inguruko nekazarien egoera edo jauntxoek Madrilen jokatzen zuten papera ezin dira alde batera utzi. Baina, hala ere, bere ideia, matxinadari espekulazioaren oihartzunak bilatzen dizkion neurrian, ez dugu erabat baztertu behar, zeren beste ikuspegiak ere ez baitu gatazka bere osotasunean esplikatzen. Oraindik hainbat gauza dago aztertzeke.

Antza denez, merkataritza handiaren bitartez eskuratu zuten aberastasunarekin, hainbat merkatarik lurra erosi zituzten. Merkatarari horiek osatuko lukete Labordak "komertzioaren patriziatua" izenez izendatzen duen taldea, «merkataria handia lurrera eta nekazaritza-interesetara hurbildu izanaren ondorio» litzatekeena (Laborda, 1978: 154). Talde horren existentziak azalduko luke Otazuk Bilbori egindako eraso merkataritza Kontsulatuaren bitartez kontrolatzen zutenei egindako erasotzat interpretatu izana. Kontuan izan behar dugu kolonialetan aritzen ziren merkatariek ez zituztela begi txarrez jauntxoak soilik ikusiko, antzeko iritzia izan behar baitzuten lanbide berekoak izanik hain elkartasun gutxi erakutsi zuten merkataria nagusiez.

Beraz, bizkaitar gizartean erabateko bipolaritaterik ez izatea begi bistakoa egiten zaigu. Eta, hain zuzen ere, merkataritza- eta nekazaritza-munduaren arteko loturak aztertzen diren heinean, matxinada eta bere zergatiak argituz joango dira.

Bestalde, bada matxinada pizteko garrantzia izan zuen beste faktore bat eta lan honetan gutxi aipatu duguna: euskaldunen foruekiko atxikimendua. Argi dago foruen defentsa alde batera utzi behar ez den alderdi garrantzitsua dela, baina are argiago dago erregeak foruei egindako erasoak ez ditugula eragile bakartzat ezta

14. Dotore janzen ziren aberatsak izendatzeko erabiltzen zuten garaikideek *golilla* hitza.

nagusitzat ere hartu behar. Urrutikoetxeak dioen bezala, foruen desegite-prozesua aztertzerakoan huts egitea litzateke desoreka-elementu bakarrak kanpo-erasoak izan zirela pentsatzea, «zeren posible egiteaz gain, bere iraupenari laguntzen dioten osagarriak soilik bertako oinarriak baitira» (Urrutikoetxea, 1986a: 126).

Dagokigun matxinada Antzinako Erregimeneko beste matxinada nagusiekin alderatzeak ere argi gehiago ekar diezaioke bere ulermenari. Gatzaren mutina 1631-1634 bitartean, Gipuzkoako 1766ko matxinada edo 1804ko Zamakolada liriateke matxinada horiek¹⁵. 1631-34 eta 1718ko gertakariak konparatzerakoan Fernández de Pinedok zera dio:

Zergen presio zuzenak edota zeharkakoak piztarazi zuen matxinada bietan. Bi astinaldi horiek agerian utzi zituzten gorenen eta nekazarien arteko tirabirak, gorenek Koroarekin zituzten loturak, nekazariak probintziako gobernuarekiko zuten mesfidantza... Jakina, desberdintasunak ere baziren, batez ere matxinadan bilbotarrak ez zirela 1631-1634koan bezain gogotsu aritu (Fernández de Pinedo, 1999: 402).

Eta zera dio jarraian: «1718koa iraganetik gertuago dago 1766 edo 1804kotik baino» (ibid). Ziur badela ikuspuntu hori hain argi ikusten ez duenik. Edonola, gizarte-gatazka horien guztien azterketak eta beraien inguruan sor daitezkeen ikuspuntu desberdinek ulermen aberatsago baterako bidea baino ez dute irekitzen (ikus Urrutikoetxea, 1986b).

Gure matxinadako nekazariei dagokienez, esan daiteke matxinada piztu aurretik eliteen arteko aurkaketa baten biktima izan zirela, eta, tartean egonik, kaltetuta atera zirela. Ikusi beharko litzateke zein neurritan, Guiard-ek zioen bezala, izan ziren gutxiengo batek manipulatuak. Baina manipulatuak ala ez, argi dagoena zera da: urte hartako uzta txarrak nekazariei zein jauntxoei kalte egin ziela, baina aduanen lekualdatzea nekazarien eta erosteko ahalmen txikiko kontsumitzaileen kalterako bakarrik izan zela, ez jauntxoenerako, ezta merkatari nagusienarako ere, eta kaltetuek ez zutela barkatu.

Matxinada errepresio motz baina bortitz batekin bukatu zen. Hogeita hamabi asaldatu heriotzera zigortuak izan ziren (hogeita hamaika Bizkaian eta bat Gipuzkoan), eta beste sententzia batek hogeita hamalau herri gatazkak sorturiko gastu eta txikizioen erantzule bihurtu zituen. Heriotzera zigortutakoen artean zegoen Miguel Sarachaga, tabako-merkataria eta Jaurerriko sindiko orokorra. Bera izan zen Jaurerriko gobernuko partaideen artean aduanen lekualdatzearen aurka egoten jarraitu zuen bakarra. Sarachagak jokaturako paperak frogatuko luke nekazari eta kontrabandisten arteko lankidetzak, zerren irailaren 4ko goizean, nekazariak Bilbora jaitsi baino apur bat arinago, Begoñan egiten ari zen Udalbatza Irekira abiatzen ikusi baitzuten.

15. Egun Gatzaren mutinaren inguruan tesi bat egiten ari da Deustuko Unibertsitatean; 1766ko matxinadari buruz aipagarria da Iñurrateguiren lana (1996); eta Zamakoladari buruz Guezalarena (1996).

Bibliografía

- Angulo, A., (1995): *Las puertas de la vida y de la muerte: la administración aduanera en las provincias vascas (1690-1780)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Bilbao, L. M. eta Fernández de Pinedo, E., (1984): "La producción agrícola en el País Vasco (1537-1850)", *Cuadernos de sección: Historia-Geografía* II, 83-196.
- , (1988): "Artesanía e industria", in Artola, M. (zuz.): *Enciclopedia de Historia de España 1: Economía. Sociedad*, Alianza, Bartzelona, 105-190.
- Enríquez Fernández, J. eta J. C., (1988): "Comportamientos populares durante las matxinadas vascas: moral patibular y orden tradicional", *II Congreso Mundial Vasco III: Economía, Sociedad y Cultura durante el Antiguo Régimen*, Txertoa, Donostia, 341-348.
- Estévez, X., (1996): *Historia de Euskal Herria. Del hierro al roble*, Txalaparta, Tafalla.
- Fernández Albadalejo, P., (1975): *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*, Akal, Madril.
- Fernández de Pinedo, E., (1977): "El campesino parcelario vasco en el feudalismo desarrollado (ss. XV-XVIII)", *Saioak* I, 136-147.
- , (1999): *Euskal Herriko ekonomi hazkundea eta gizarte-aldaketak (1100-1850)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Zarautz [1974].
- Floristán, A. eta Imízcoz, J., (1988): "Sociedad y conflictos sociales (ss. XVI-XVIII)", *II Congreso Mundial Vasco III: Economía, Sociedad y Cultura durante el Antiguo Régimen*, Txertoa, Donostia, 281-308.
- García de Cortázar, F. eta Montero, M., (1988): *Diccionario de Historia del País Vasco*, Txertoa, Donostia.
- González González, A. F., (1994): *La realidad económica guipuzcoana en los años de superación de la crisis económica del s. XVIII (1680-1730)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Zarautz.
- , (1995): *Instituciones y sociedad guipuzcoanas en los comienzos del centralismo (1680-1730)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Zarautz.
- Guezala, L. de, (1988): "La matxinada de 1718 en el Señorío de Bizkaia: Una rebelión popular en defensa de la foralidad", *Muga* 66, 64-75.
- , (1996): *Conflictividad social y política en Bizkaia a finales del Antiguo Régimen: La Zamacolada*, [tesi argitaratu gabea], Leioa.
- Guiard Larrauri, T., (1971): *Historia de la Noble Villa de Bilbao* III, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, [1908].
- Iñurrategui Rodríguez, J. M., (1996): *Monstruo indómito: Rusticidad y fiereza de costumbres: foralidad y conflicto social al final del Antiguo Régimen en Guipúzcoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Labayru, E., (1968): *Historia General de Bizcaya* VI, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, [1897].
- Laborda Martín, J. J., (1978): "El arranque de un largo protagonismo: la recuperación comercial de Vizcaya a comienzos del siglo XVIII", *Saioak* II, 136-181.
- , (1981): "Materiales para el estudio de la política comercial durante el primer reinado de Felipe V: el valor ilustrativo del caso vizcaíno (1700-1727)", *Cuadernos de investigación histórica* 5, 73-112.
- Madariaga Orbea, J., (1994): "Conflictos sociales de los siglos XVI-XVIII", *Gran Atlas histórico de Euskal Herria*, El Mundo, Bilbo, 161-176.
- Martínez Rueda, F., (1994): *Los poderes locales en Vizcaya*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Olaechea, R., (1979): "El centralismo borbónico y las crisis sociales del siglo XVIII en el País Vasco", *Historia del Pueblo Vasco* II, Erein, Donostia, 165-226.

- Ortega, M., (1993): *Conflicto y continuidad en la sociedad rural española del siglo XVIII*, Síntesis, Madril.
- Otazu, A., (1973): *El "igualitarismo" vasco: mito y realidad*, Txertoa, Donostia.
- Porres Marijuán, R., (1998): "Aginpidea, urrialdia eta zergak: gizarte gatazkak", *Lur entziklopedia tematikoa. Historia*, Lur, Gallarta, 255-271.
- Portillo Valdés, J. M., (1991): *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las provincias vascas (1760-1808)*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril.
- Sagarminaga, F., (1988): *El Gobierno Foral del Señorío de Vizcaya III.T.*, Amigos del libro vasco, Bilbo, [1892].
- Urrutikoetxea, J., (1986): "Revueltas sociales en el País Vasco húmedo. Siglos XVII y XVIII", lehen zatia (a): *Peñaflorida y la Ilustración*, Mundaiz, Donostia, 115-151; eta bigarren zatia (b): Mundaiz 31, 5-80.
- Zabala, F., (1985): "El centralismo borbónico y las crisis sociales del siglo XVIII", in Larrea, M. A. et alii : *Historia del País Vasco: siglo XVIII*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 225-246.